



## Abenduaren 18 eta 19ko mahaiak.

### Atzo eta gaurko mahai sektoriala eta jarraipen batzordea.

Atzo eta gaur, abenduak 18 eta 19, bi mahai izan ditugu Lakuan, hirugarren mahai negoziatzailea eta plantilla esleitzeko irizpideen akordioaren Jarraipen batzordea, hurrenez hurren. Mahai negoziatzailean hurrengo gaiak jorratu ziren: Berritzeguneak ordezkaturiko dituen dekretu berria, 2025eko Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako EPEaren datuak eta egutegia, eta Berraxikipen dekretu berria; Jarraipen batzordean 2022ko maiatzaren 26ko Mahai Sektorialaren Akordioaren Segimendua.

#### MAHAI SEKTORIALA:

Hasteko, irakaskuntzarako berrikuntza eta inklusioa, bizikidetzeta, aniztasunaren kudeaketa garatzeko zentroak sortu eta lanpostuen zerrendak onartzeko dekretu berriaren azalpena egin zuen Hezkuntza Sailak; bertan, Berritzeguneak ordezkaturiko dituzten bi eremuen berri eman ziguten. LABek ekarpenak egin dizkio aipaturiko dekretuari, eta abenduaren 26 arteko epea dago oraindik langileek ekarpenak egiteko. Bestalde, aipaturiko hainbat gai mahai negoziatzailean ekarri beharra aldarrikatu dugu, soldatak esaterako.

2025eko EPEari dagokionez, egutegiaren eta plaza eta espezialitate kopuruen proposamena helarazi zigun administrazioak. Guztira 1.268 plaza eskainiko dira; kopuru hori karrerako funtzionarioen erretiroek eta heriotzek sortutako hutsuneei estatu espainolak inposaturiko %20ko birjartze-tasa gehituz kalkulatu da. Enplegua sortzeko estatu espainolak ezartzen dituen mugak gaintu behar dira, beharrezkoak diren lanpostuak sortu eta egonkortzea hemen erabakiz. Bestetik, egutegiaren proposamena behin-behinekoa izanik, ekarpenak egingo dizkiogu. Gogoratu behar dugu EPE eredu berriaren aldeko apustua egiten dugula, eta hori helarazi genuen beste behin ere.

Azkenik, Berratzikipen dekretu berriaren nondik norakoak azaldu zituen Hezkuntza Sailak; LABek bere ekarpenak aldeztu aurretik helarazi zizkion.

### **JARRAIPEN BATZORDEA:**

Akordioa garatzeko bi figura daude oraindik aplikatzeko: IKT eta AKA. Lanpostu horiek perfilatueta horren inguruko monografikoa egin dezala adierazi du LABek, datorren jarraipen batzordean negoziatu eta lehenbailehen ikasetetxeetan baliabide gehigarri hauek txertatzeko.

Jaiotze-tasaren jaitsierarekin eta matrikulazio galerarekin, 2023/2024 ikasturtetik 2024/2025 ikasturtera, 2.639 ikasle gutxiago ditugu Haur eta Lehen Hezkuntzan; horrek akordiorik gabe ekar lezakeen gela galeren aurrean ratio-murrizketa aplikatzeak lanpostuen mantentzea, baliabide gehigarriak eta lanpostuen gehikuntzak ekarri ditu.

### **HEZKUNTZA PUBLIKOA INDARTU!!!**



**BAGARA** *zurekin* **BAGARA** *Un sindicalismo diferente*

